

Memoria gorde,
oraina bizi,
etorkizuna eraiki,
izan Kronikalari!



■ HERNANI HISTORIA

Liburu aurkezpena gaur, Beñi Agirrek

Gaur aurkeztuko du Beñi Agirre hernaniarrak, bere azkeneko liburua: *Historia nabarra de Gipuzkoa; De su origen, conquista y Fueros*. Biterin izango da, arratsaldeko 19:00etan hasita; eta Agirrerekin batera, egongo da Koldo Martinez Garate idazle, historialari eta Nabarraldeko kidea. ■

■ HERNANI GOIZ EGUZKI

Irailean Galiziara joateko, gaurtik izenematea

Galiziara bidaiara antolatuko du Goiz Eguzki, irailaren 22tik 29ra; zortzi egun eta zazpi gau. Eta joan nahi dutenek, gaur arratsaldeko 16:00etatik aurrera izango dute izena emateko aukera, egoitzako bulegoan. ■

■ HERNANI IGERIKETA

Ate irekien beste saio bat, gaur

Ate irekien bi jardunaldi antolatuko ditu Hernaniko Igeriketa Taldeak, ekainerako. Eta joan den asteazkenean egin bazuten aurrenekoa, gaur izango da bigarrena, kiroldegian, arratsaldeko 18:00etatik 19:00etara. 9 urtetik gorako neska-mutil guztiak azaldu daitezke, taldea ezagutu eta probatzeko, entrenatzaile eta igerilariekin batera. Nabarmendu dute, denentzat dagoela tokia taldean: lehiaketetan parte hartu edo ez, eta baita arazo fisikoak izanda ere. ■

■ HERNANI HERRIGUNEA

Gona tailerra, gaur

San Joan jaietako koadrila egunerako, *Jantzi gona* ekimena bultzatu du Sutu Hernanik; eta horri begira, gona tailerra antolatu dute gaur, Urumea Herrigunean. Arratsaldeko 18:30etan izango da, bigarren solairuan. ■



■ HERNANI SAN JOAN JAIK

«Beti bezain anitza eta aberatsa», aurtengo San Joan jaietako menua

Ostiraleko Preludio Txikiak eta larunbateko Preludioak egingo diete ongietorria, aurtengo San Joan jaietako. Atzo aurkeztu zuten festetako egitaraua, eta Ozenki abesbatzak botako du txupinazoa.

BOST eguneko festa, «beti bezain anitza eta aberatsa» izango den egitarauarekin. Horrela aurkeztu zituen San Joan jaiak atzo, Koro Etxeberria kultura zinegotziak. Eta aditzera eman zuen, Ozenki abesbatza izango dela aurtengo omendua, jaietako hasiera emango diona, bere 25garren urteurrenean: «giro polita daukagu taldean», nabarmendu zuen Imanol Kamiok, «eta horregatik jarraitzen dugu. Ez genuen halakorik espero, baina oso pozik hartu dugu albiste», eskertu zuen.

Txupinazoaren aurretik, dena den, bi Preludioek egingo diete ongietorria jaietako, egun hauetan. Etzi izango da Preludio Txikia, 19:00etan Atsegindegin, Hernani eta Kantuz musika eskoletako ikasleekin, Inmakulada, Langile, Urumea eta Elizatxo eskoletakoekin, eta Ttarlako dantzariekin.

Preludio nagusia, berriz, larunbat gauean izango da, Plazan, 22:30etan. Eta aurten, Alboka folk taldea izango da gonbidatu berezia, bere 25garren urtebetetzean: «beti bizitu dugu preludioa, eta oso eskertuta gaude, aurten jotzeko aukera izanda. Lau doinu eskainiko ditugu, eta bereziena da aurrenekoa, *Fusilatu zituztenei*. Zoritxarrez, Allan Griffinek ezingo du gurekin egon, eta Iker Lopez ariko da bere ordez», azaldu zuen Joxan Goikoetxeak.

Zenbait nobedade, eta berreskuratutako ekintzak
Ekainaren 23tik 27rako programari dagokionez, zenbait ekintza nabarmendu zituzten, atzo-



Jaien antolakuntzan parte hartu duten taldeetako eta Udaleko ordezkariak, aurtengo kartela atzean dutela.

ko agerraldian. Kolore Guztiak elkarteak kideek, esaterako, azaldu zuten helduentzako tailer bat ere jarriko dutela 27an, haurren jolas eta tailerrekin batera, elkarteak gazteekin «esperientziak elkarbanatu eta haien errealitatea ezagutzeko».

Agurtzane Aizpuru kultura zinegotziak, bestalde, aipatu zuen mariatxiak berreskuratuko dituztela, «hainbestetan eskatu digutena»; eta ohiko txarangez gain, Koadrilen Egunerako Elektrotxaranga antolatu duela Kontrakantxa gaztetxeak.

Emanaldien artean, Lekitoko Deabruak taldearen piroteknia kale ikuskizuna nabarmendu zuen Koro Etxeberriak; eta azaldu, parte hartu nahi dutenek arropa zaharrarekin joan behar dutela; ikusleek ez. San Joan Konpartsak ere,

jakinarazi zuen aurtengo konpartsaren gaia: 1850-1970 urteetako Hernani, demokrazia, nekazaritza, industria... atalak landuz. Karrozan, irudikatuko dituzte poxpolo fabrikak: «Hernanin egon ziren, eta jendeak ez daki. Garai bateko etiketeekin, poxpolo kaxak ere egingo ditugu, eta salgai jarri». Gainera, Plazako ekitaldian, Iñaki Urdangarin omenduko dute.

Eta azkenik, Bilgune Feministatik azaldu zuten, eraso sexisten kontra prestatu dutena, Emagin elkarte feministarekin eta Udalarekin: *haima* bat jarriko dute 23an eta 25ean Plaza Berrin, protokoloa eta informazioa zabaltzeko; eta 24 orduko telefono arreta jarriko dute martxan, ekainaren 22ko gauerditik: 688 685 164. Eskatu dute, zerbait gertatu baina la-

guntzarik ez behar izan arren ere deitzeko, «erregistratuta geratu dadin, eta herriko errealitatea ezagutu dezagun».

Jaien hasiera edo bukaera balkoitik ikusteko, 12 toki

Bestalde, aurten ere emango du aukera Udalak, jaien hasiera edo bukaera udaletxeko balkoitik ikusteko. Hamabi toki daude guztira, sei jaien hasierarako, eta beste sei bukaerarako. Eta horietatik, zortzi erreserbatuko dituzte gurgildun aulkian dabilen pertsonentzat.

Izenematea zabalik dago, ekainaren 18ra arte, udaletxeko Herritarren Harrera Zerbitzuan. Zozketa hilaren 20an egingo dute, 12:00etan, parekidetasun irizpidea kontutan hartuz. Eta saritutako bakoitzak, beste pertsona bat eraman dezake. ■

MARI FE
ARRANDEGIA
NAGUSIA 36 943 550 489

ITXASPE
Arrandegia
Antziola 5
Tel.: 943 330 365
Mobila: 665 735 224
20120 Hernani

Tripontzi
jatetxea
PINTXOK
RAZIOK
ENTSALADAK
PLATER KOMBINATUAK
ARRAI FRESKOAK
ANDRE KALEA, 11 · HERNANI
943 555 724

LAN ESKAINTZA
Langile bila gabiltza sagastian eta upategian lanean aritzeko
Esperientzia baloratuko dugu
Prest bazu eta interesa baduzu, bidali zure CVa helbide honetara:
lanerakoprest4@gmail.com



GAUR Ostarreak izango dira nagusi gaur, eta tenperaturak gora egingo du. Goizaldean euri pixka bat egin dezake oraindik, baina gero, giro argia izango dugu. Mendebaldeko haizea, bizi hasi arren, indarra galduz joango da, egunean zehar. **Min.10° / Max.18°**



BIHAR Antzeko giroa, bihar ere. Egunsentia hotza izan arren, tenperatura epelduko da gero, eta ostarreak izango dira nagusi, bereziki goizean. Arratsaldean, bero-lainoak garatuko dira, eta baliteke zaparradaren bat botatzea ere. Haizea, aldakor eta ahul. **Min.11° / Max.18°**



TAXIAK: 943 550093 (Hernani) 622 222 343 (Astigarraga) 948 514037 - 948 514019 (Goizueta) **UDALTAINGOA:** 943 248900 (Hernani) 943 335230 - 699 487 587 (Astigarraga) **DYA:** 943 464622 **AUTOBUSAK:** **Garayar:** 943 556658 **Areizaga:** 943 452708 **Korreoa Goizueta-Hernani:** 948 514037 **ANBULATORIOA:** 943 006666 - 900 203050 (Hernani) 943 335644 (Astigarraga) 948 510800 (Goizueta) **Egunez:** **A. Etxebarria** Andre kalea, 48 (Hernani) **943 551793** **Gauzez:** **Aldabe** Perkaiztegi, 8 (Antziola, Hernani) **943 336022** **Goizueta:** Nagusia 64 **948 514353**

ASTIGARRAGA IBAI PARKEA



Urki Salaberria, Amaia Usabiaga, Maria José Lacadena eta Zorione Etxezarraga.

'Ur gardena' lanak gobaralarien memoria berreskuratuko du

Maria José Lacadena artistaren eskultura Ibai Parkean jarriko da, garai bateko emakumezko gobaralarien lana gogoratu eta aitortzeko.

«MEMORIA nola ekarri eskultura lan batera» da Maria José Lacadena eskulturgile oriotarrak egin duena, *Ur gardena* eskulturarekin. Astigarraga eta Urumea ibaia, Donostiako *Belle Epoque* garaian, aristokraten arropa garbitzeko erabiltzen zen, eta astigarrar emakumeak omen ziren hoberenak. «Errelato hori berreskuratu, gogorazi, eta lan hori aitortu nahi izan dugu, Ibai Parkean jarriko den eskultura honekin», aipatu zuen Zorione Etxezarraga alkatetza, atzoko aurkezpenean.

Eta lan horretan, Maria José Lacadenaren laguntza izan dute. Lau proiektu aurkeztu ziren, Ibai Parkean eskulturak jartzeko, baina aho batez aukeratu zuten Lacadenaren pro-

«Asko erakarri zidan proiektuak, emakumeak zirelako eta ikusita zer eta nola egiten zuten lan»

iektua Udaleko kultura baztordean, aitortu zuen Urkiri Salaberria zinegotziak.

Maria José Lacadenak bere eskultura azaldu zuen atzo, Pleno aretoan. «Asko erakarri zidan proiektuak, emakumeak zirelako, eta ikusita zer eta nola egiten zuten».

Eskultura, elementu desberdinez dago osatuta, tamaina naturalean. «Garbitzeko mahaia dago, eta gobaralari edo *lavandera* emakumearen

silueta baten bidez lortu da irudikatzea. Arropa astintzen ageri da emakumearen silueta, eta hortik ateratzen da uraren irudia, mahaiarekin bat egin arte. Baldea dago, harriak, jantziak edo arropak belarretan zabaldua, eta lore txuriak. Altzairu herdoilgaitza da erabili den materiala».

Inaugurazio datarik ez dago oraindik

Ibai Parkea laster egongo da irekita, hilabete honetan seguru aski, baina eskulturak oraindik ere gehiago itxaron beharko du. Etxezarraga alkatetaren esanetan, teknikariek adostu behar da kokapen egokiena, aurrena: «oraingoz ez dago datarik». ||

JASOTA BEZALA

✓ Gutuna argitaratzeko ezinbestekoak dira: izena eta bi abizen, NAN edo EHNA erakustea eta telefonoa ✓ Gehienez 1.800 karaktere onartuko dira ✓ Kronikak beste hizkuntzetan jasotako kartak euskeratzen ditu ✓ Kronikak ez ditu bere gain hartzen sail honetan esaten direnak, edo itzultzeko garaian izan daitezkeen gaizki ulertuak.

Erreferenduma egizu posible Honatx (laburbilduz) Gure Eskuk aurrera begira duen hainbat asmoren berri. Azken sei urteotan mobilizazio eta herri galdeketen bidez lortutako babes zabala gainditzea, eta erakunde publikoetan eragitea da asmo nagusia.

Autogobernu Ponentzia gauzagarrria izango litzateke erabakitze eskubideaz libreaki, inongo inposatze eta esku-sartzerik gabe balia bagintezke.

Autogobernu Ponentziak be-

rebiziko eragina izanen du gizarzte osoarengan.

Gure Eskutik, herritarrekin eta Herri Ekimenaren bidez, Erreferendum lotesle bat gauzatzeko aldarrikatuko dugu. Arazoei irtenbide eta oinarri demokratikoa eman behar diegulako.

Asmo handiko erronka da geure buruari jarritakoa, eta inoiz baino garrantzitsuagoa izanen da herritarren babesa eta parte hartzea antolatuko ditugun ekimenetan.

Euskal Herri mailan Gure

Esku talde indartsu bat lortzeko, bazkide kanpaina ere martxan jarriko dugu.

Hurrengo aroari hasiera emateko, ekainaren 13an *Erreferenduma egizu posible* lelopean solasaldia antolatu dugu, Ramon Zallo, Rafa Diez eta Luke Uribe-Etxebarriarekin. Biterin izango da, arratsaldeko 7etan. Bertan jakinaraziko ditugu Hernaniko Gure Eskuk emanen dituen hurrengo pausoak.

Eduardo Elosegi Erdozia
Hernaniko Gure Esku

HERNANI LITERATUR SOLASALDIA

'La uruguay' liburuari buruz, gaur

Gaur egingo dute ekaineko literatur solasaldia, gaztelaniaz, Hernaniko Udal Liburutegian. Pedro Mairalen *La uruguay* liburuari buruz ariko dira, arratsaldeko 19:30etan, Amaia Garciak gidatuta. ||

HERNANI BERDINTASUNA

Bihar aurkeztuko dute, 'Nik sinesten dizut'

Aurreko ostegunean aurkezteko zen Samara Velte kazetari eta idazlea, bere liburua: *Nik sinesten dizut; bortxaketaren kultura eta San Ferminetako kasua*. Baina atzeratu egin zen azkenean, eta biharko jarri dute hitzordu berria, arratsaldeko 18:30etan Biterin. Liburuan, *Manada* auzia aztertzen du Veltek, ikuspegi kritiko batetik. ||

HERNANI KAXKO ELKARTEA

Buruarinak egiteko, bigarren saioa gaur

Buruarin tailerra antolatu du Kaxko elkarteak, aurten ere; eta gaur egingo dute bigarren saioa, arratsaldeko 17:00etatik 19:00etara, Biterin. Tailerra doakoa da, baina izena eman behar da, aurretik: ipuitantai@gmail.com emailen, edo 722 680 828 telefonoan. ||

ASTIGARRAGA MUTTUAI FEST

Kontzertu sorta zabalari hasiera, bihar

Muttuai Fest antolatu dute Astigarragan, lau egunez; eta biharko igandera, 20 emanaldi izango dira, hiru gunetan: kultur etxearen kanpoaldean, Murgia Jauregian, eta Apeztegi plazan. Honakoak dira biharkoak: Kazkabarra (18:00), Gabiltzarian (18:30) eta bertso saio musikatua (20:00), kultur etxean; eta Dama Beltza (19:00) eta Latitud 43 (21:00), Murgia Jauregian. ||

ASTIGARRAGA KIROLDEGIA

Etzi arte, datorren ikasturteko kirolean

Zabalik dago aurre-izenematea Astigarragan, datorren ikasturterako kirol jardueretan: Mundarroko eskubalo, saskibalo, atletismo, judo, pelota eta futbol eskolak, eta kiroldegiko *Zumba Kids*, *Jump Fit*, *Aero Gym* eta *Ziklo Gazte* jarduerak. Etzi da azkeneko eguna: kiroldegian, kiroldegia@astigarraga.eus emailen, edo 943 33 36 76. ||

Eskelak

Eskelak ilunabarreko 19:30ak arte jasoko dira. Izen abizenak, eskela jartzen duenak eskatu bezala errespetatuko dira eta funeraria bidez jasotzen den kasuetan, jaso bezala.



IRAGARKI MERKEAK

Pertsona bat behar da kafetegia batean uztaila eta abuztuan arratsalde zerbiztatzen lan egiteko.
Bidali CV-a: txkafetegia7@gmail.com

Aseguruen munduan lan egin nahi duzu? Bidali zure C.V.a: cascoco@mapfre.com helbide elektronikora.

Almazena salgai Hernaniko Lizeaga auzoan (Peña Otaño alzean). 40 m², 4 m altuera, entreplanta, trasteleku eta bulegoa jarrita. WC ere bai. **Deitu: 680 136 066**

Hernaniko Etxeberri auzoan uztailera arte martxan dagoen eta harategia duen janari denda bat alokatzen edo saltzen da jubilaria dela eta. **Interesatuak Deitu: 689 290 923**

Iñigo Royo Masajista. Masajea, naturopatia, osteopatia, kinesologia, reiki, homeopatia, akupuntura, ... **Deitu: 943 33 28 94 - 626 80 76 33 (Agustindarren plaza, 4)**